



**LESAKAKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA**

Plaza Zaharra, 1  
31770 Lesaka (Nafarroa)  
Telf. 948637005  
www.lesaka.eus  
udala@lesaka.eus

**LESAKA**

**Aldaketa, eremu publikoko, herri-lurretako eta erabilera publikora atxikitako lur pribatuen zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen duen ordenantza fiskalan. hasierako onespina.**

Lesakako Udalak, 2020ko maiatzaren 28an egin osoko bilkuran, hasiera batez onetsi zuen aldaketa egitea indarrean dagoen Eremu publikoko, herri-lurretako eta erabilera publikora atxikitako lur pribatuen zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen duen ordenantzan, COVID-19 koronabirusaren bilakaerak sortutako ezohiko egoeraren dagokion tarifak ez kobratzeko.

Onetsitako aldaketa jendaurrean egonen da hogeita hamar egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea azter dezaten eta erreklamazioak, kexak edo oharrak aurkez ditzaten; hori guztia, bat etorritik Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1 artikuluaarekin.

Jendaurreko epean inork ez badu alegaziorik aurkezten, behin betiko onetsirik geldituko da Eremu publikoko, herri-lurretako eta erabilera publikora atxikitako lur pribatuen zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu bereziak arautzen duen ordenantzan egin aldaketa, eta haren testu osoa argitaratuko da Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Lesakan, 2020ko ekainaren 2an.

Alkatea,



Ladis Satrustegui Alzugaray